



HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA, ZEINAK ARAUTZEN BAITU EUSKAL HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAK NOLA EMANGO DIZKIEN FUNTS PUBLIKOekin MANTENDUTAKO IKASTETXEEI IKASLEEN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO BEHAR DITUZTEN BALIABIDEAK (2024-2025 IKASTURTEA)

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikasleen aniztasunari erantzuteko, neurri eta laguntza ugari hartu behar dira, ikasle guztiek parte hartzeko eta ikasteko dituzten oztopoak gainditzeko eta, haien eskola-arrakasta lor dezaten.

2024-2025 ikasturtean aniztasunari erantzutearekin lotutako baliabide jakin batzuen premiak baliozkotzeko irizpide funtsezkoak nahiz prozedurazkoak antolatu eta ezartze aldera,

EBAZTEN DUT

1. artikulua. - Araututako baliabideak

Ebazpen honetan, honako baliabide hauen plangintza eta baliozkotzea arautzen da:

- 1) Hezkuntza berriaz sendotzeko proiektuak (HBSP)
- 2) Curriculum anitzeko programak (CA)
- 3) Eskolatzeko-programa osagarriak (EPO)
- 4) Hezkuntza-laguntzako berriazko premiei (HLBP) laguntzeko langile osagarriak:
 - Pedagogia terapeutikoko irakasle espezialistak (PT)
 - Hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE)
- 5) Gela egonkorak (GE) eta zereginen ikaskuntzarako gelak (ZIG)
- 6) Hezkuntza bereziko ikastetxeetako gelak

2. artikulua.- Araubide juridikoa

Erregulazio honen xede diren baliabideak arau hauetan jasotako araubide juridikoaren mende daude:

- Agindua, 2022ko abenduaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak eskolatzeko-prozesu arruntetik kanpo eskolatzeko oinarri arautzaileak ezartzen dituena, Hezkuntza Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan, eta zehazten baitira



Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Eskolatzeko Batzordeen osaera, eginkizunak eta antolamendu- eta funtzionamendu-arauak.

- 2022ko ekainaren 21eko agindua, Hezkuntzako sailburuarena, hezkuntza-itunak berritzekoa eta hezkuntza-itunen araubidean sartzekoa, unitateak zehaztuta, eta laguntzako langile osagarriak ituntzekoa, 2022-2023 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtera arteko indarraldiarekin.
- 2022ko maiatzaren 26ko erabakia, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan plantilla esleitzeko irizpideei buruzkoa.
- 217/2022 Errege Dekretua, martxoaren 29koa, zeinaz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko ikasketak eta antolamendua ezartzen baitira.
- 984/2021 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Lehen Hezkuntzako ebaluazioa eta promozioa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ebaluazioa, promozioa eta titulazioa arautzen dituena.
- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- 2002ko maiatzaren 7ko agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Agindu honen bidez, gizarte edo kulturaren aldetik egoera zaugarrian dauden eta eskolara egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleentzat hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituen agindua aldatzen da.
- 118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola konprentsibo eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.
- 1998ko uztailaren 30eko agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, beharizan bereziak dituzten ikasleentzat eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.
- 1998ko uztailaren 30eko agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik egoera zaugarrian dauden ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat.
- 1997ko uztailaren 9ko agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum-aniztasuna eratzeko programak arautzen dituena.



3. artikulua.- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak (AHIZ) ebazpen honetan jasotako baliabideak planifikatzeko eta baliozkotzeko prozesua

Jarraian, baliabide bakoitzaren **funtzio** eta **prozedurazko betekizunak** zehazten dira.

3.1.- HEZKUNTZA BERARIAZ SENDOTZEKO PROIEKTUA (HBSP)

Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektuak (HBSP) hezkuntzaren arloko ekintzak dira, gizarte- edo kultura-egoera zaurgarrian dauden edota eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) lehen eta/edo bigarren mailako ikasleei zuzenduak.

Oro har, DBHko 1. eta 2. mailan eskolatutako ikasleek (16 urtetik beherakoak) atzerapen larria badute, erantzun pertsonalizatua eman beharko zaie, eta ikastetxeak berak erabakiko du nolako erantzuna eman, bere baliabideekin.

Egoera horretan ikasle asko daudelako, ikastetxearen baliabideak erabilita neurri egokiak hartzea ezinezkoa edo zaila baldin bada, Hezkuntza Administrazioak behar beste giza baliabidez hornitu ahal izango du, ikastetxeak aurkezten duen proiektuaren eta irakasleen parte-hartzearen arabera. Halaber, kontuan hartuko da zenbat ikasle dauden egoera horretan.

3.1.1.- Betebeharrak

HBSPak garatzen dituzten ikastetxeek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Jarraian zehazten den profileko 8 ikasle izatea, gutxienez:
- DBHko 1. mailan matrikulatutako 13 edo 14 urteko ikasleak, proiektua eskatzen den urte naturaleko abenduaren 31 baino lehenago adin hori beteta badute. Hau da, ez dira programan sartuko DBHko 1. mailan matrikulatutako 12 urteko ikasleak.
 - DBHko 2. mailan matrikulatutako 14 urteko ikasleak, proiektua eskatzen den urte naturaleko abenduaren 31 baino lehenago adin hori beteta badute, eta egoera hauetako batean badaude:
 - eskolan atzerapen handian, batez ere arlo instrumentaletan, eta atzerapen hori gizarte-egoera zaurgarrietan egotearekin loturik.
 - eskolara egokitzeko arazoekin, eta sarritan ikasketetan atzeratuta.
 - DBHko 2. mailan matrikulatutako 13 urteko ikasleak, proiektua eskatzen den urte naturaleko abenduaren 31 baino lehen adin hori beteta badute, eta egoera hauetako batean badaude:
 - ebaluazio negatiboa izatea, gutxienez, bi ikasgai instrumentaletan (matematika, euskara eta literatura eta gaztelania eta literatura)



- edo, aldi berean ebaluazio negatiboa izatea, gutxienez, ikasgai instrumental batean eta instrumentalak ez diren bi ikasgaitan.
- Salbuespen gisa, DBHko 2. mailan matrikulatutako 15 urteko ikasleak ere sar daitezke programan, apartatu honetan zehaztutako baldintza beretan, baldin eta irakasle taldeak uste badu ezin direla DBHko 3. mailara igaro eta ez daudela beste prestakuntza-ibilbide batean hasteko moduan.

b) Aurkeztutako dokumentuak HBSPen ezaugarrietara egokitzea.

c) Proposatzen diren jardueren ardura hartuko duten irakasle egonkorrak izatea.

AHIZak proposatutako baliabide hori esleitzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI), ikastetxean zenbat ikasleri eskaintzen zaien neurri hori gaur egun, eta proiektua zenbateraino egokitzen den HBSPen ezaugarri, xede eta helburuetara.

Proposamen horretan, gehienez, bi irakasle esleituko dira ikastetxe bakoitzeko.

Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe guztietan aplikatuko dira irizpide horiek.

3.1.2.- Plangintza formalizatzea eta argitaratzea

AHIZak hurrengo ikasturtea ituntzeko Lanpostuen Zerrendaren (LPZ) bitartez jakinaraziko die proposamena ikastetxe publikoei, eta ofiziozko proposamenaren bidez, berriz, itunpeko ikastetxeei.

Ikastetxeek AHIZari helaraziko dizkiote alegazioak balora ditzan.

3.1.3.- Eskatutako dokumentazioa aurkeztea

Proposatutako ikastetxeak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

1.- Proposatutako ikasleen zerrenda.

2.- Proiektu pedagogikoa.

AHIZak posta elektronikoz eskatu ondoren, irailean edo urrian aurkeztuko dira aipatutako bi dokumentuak.

Dokumentazioa elektronikoki baino ezingo da aurkeztu, Hezkuntza Sailak horretarako duen aplikazioaren bidez.

3.1.4.- Aurkeztutako dokumentuen tratamendua

AHIZak eskabideko dokumentazioa aztertuko du, eta egiaztatuko du aurkeztutako proiektua eta ikasleak egokiak direla.

3.1.5.- Ikastetxearen eta titularraren betebeharrak

Ikastetxeak eta haren titularrak nahitaez bete behar dituzte 2. artikuluan aipatzen den araubide juridikotik eratorritako eskakizunak, bai eta honako beste hauek ere:

- Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) edo Eskola Kontseiluak hezkuntza indartzeko proiektua onartu beharko du, eta proiektu hori ikastetxearen urteko planean sartu beharko da.
- Ikasleen gurasoek edo haien tutoretza duten pertsonak eskubidea dute ikasleen parte-hartzeari buruzko informazioa jasotzeko eta entzunak izateko.
- Eskola inklusibo baten planteamenduan garatu beharko da aurkeztutako proiektua, ikaskuntzaren diseinu unibertsalaren printzipioetatik abiatuta, ikastetxeko ikasleen aniztasunari globaltasunez eta bateratasunez erantzunda, eta itxaropen handiak sortuko ditu hartzaile diren ikasleengan. Hau da, **ezin izango ditu baliabide honen mendeko ikasle guztiak talde bakarrean bildu/sartu; aitzitik, ohiko ikasgelan antolamendu- eta metodologia-aldaketak egiteko erabiliko ditu aparteko baliabideak**. Esleitutako baliabidea ez da inola ere erabiliko ratioak jaisteko edo programako ikasleentzat talde eta saio espezifikoak sortzeko, banaketa heterogeneoetan izan ezik, hizkuntzetako komunikazioa lantzeko.
- Metodologia aktiboak eta estrategia inklusiboak erabili beharko dira, hala nola ikasgaiak arloka antolatzea, eta taldeko irakasle-kopurua murriztea, hau da, irakasle bakoitzak ikasgai bat baino gehiago ematea; bi irakasle ikasgelan; talde interaktiboetan lan egitea; tutoretzadun liburutegia; ikaskuntzaren elkarlaneko antolaketa; IKTak erabiltzea ikaskuntzak aberasteko... Horrelako estrategien ondorio ez da inola ere izango programako ikasleentzako saioak espresuki sortzea, banaketa heterogeneoei dagokienez izan ezik.
- Programaren jarduketak, baita ohiko eta ezohiko baliabideak ere, ikasle guztien eskola-arrakasta lortzera bideratu beharko dira, baina arreta berezia emango zaie programaren hartzaile diren ikasleei.
- **Neurriak antolatu beharko dira proiektuaren hartzaile diren ikasleei talde naturalaren barruan banakako arreta emateko** (banakako tutoretzak, berdin arteko tutoretzak, kontratu pedagogikoak, ikasle enbaxadoreak, babesak...).



- **Irakasle guztien arteko koordinazioa** bermatuko da, bai bertikala bai horizontala; batez ere, proiektuaren hartzaile diren ikasleak dauden taldeekin harremanak izango dituzten irakasleen arteko koordinazioa.
- **Sendiekiko harremana eta haien parte-hartzea** landuko da; era berean, haien prestakuntza ahalbidetuko da, eta ikasleekin elkarrekintzan dauden inguruko eragileekin koordinazioa sustatu ere bai.
- **Irakasleen barne-prestakuntza** antolatuko da (tutoreak, ikasketa-buruak, orientazioa...).
- Urriaren bigarren hamabostaldirako, ikasle bakoitzak bere Norbanako-Jarduera Plana (NJP) izango du. Plan horren eredia sailaren web-orrian egongo da eskuragarri. Norbanako Jarduera-Planak Hezkuntza Ikuskaritzak eskura izango ditu.
- NJP familiekiko komunikaziorako erreferente nagusi gisa erabiliko da.
- Ikasturte bakoitzaren amaieran, ikaslearen irakasle-taldeak **Norbanako Jarduera-Planaren balorazioa** egingo du, ikastetxeko irakasle orientatzaileen laguntzaz. Balorazio horretan, hezkuntza-prozesua jarraitzeko **gomendioak** adieraziko ditu. Horrekin batera, saio horretan aztertuko dira programaren emaitzek helburuekiko lortu duten betetze-maila, eta ikastetxeak hurrengo ikasturterako egiten dituen hobekuntza-proposamenak. Horiek bat etorriko dira proiektuaren garapenerako orientazioetan ezarri diren jarduera-ildoekin. Hori guztia ikastetxeak egin behar duen memorian jasota geratuko da.
- Ikastetxeek, epe jakin batean, justifikazio-agiriak beteko dituzte, erabilgarri dauden plataforma digitaletan argitaratzen diren ereduaren arabera.
- Hezkuntza Ikuskaritzak, proiektua justifikatzen duten ikasleek jarduketa-plan pertsonalizatuak dituztela egiaztatzeaz gain, jarraipena egingo du, ziurtatzeko ikastetxeak bete egiten dituela proiektuan parte hartzeak dakartzan baldintzak eta betebeharrak.

3.2.- CURRÍCULUM ANITZEKO PROGRAMAK (CA)

CA programak aniztasunari erantzuteko neurriak dira, eta DBHko 3. edo 4. mailan eskolatuta egonda ikasteko edo eskolara egokitzeko zailtasun nabarmenak nahiz ikaskuntza-eritmo desberdinak dituzten ikasleei zuzenduta daude (ez dira hor sartzen ikasteko ahaleginfaltaren ondoriozko arazoak dituztenak). Ikasle horiei DBHko graduatutitulua lortzen laguntzea dute xede.

Curriculum anitzeko programek, oro har, bi ikasturte irauten dute, hirugarren mailatik etapa amaitu arte.



3.2.1.- Hartzaileak eta sartzeko baldintzak

CA programak garatzen dituzten ikastetxeek baldintza hauek bete behar dituzte:

1.- Talde bakoitzean gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15 izatea, honako profil honekin:

a) Programako lehen mailara sartzeko profilak:

- DBHko bigarren maila amaitzean, hirugarren mailara igarotzeko moduan ez dauden ikasleak, eta irakasle-taldeak uste badu ikasturte berean urtebete gehiago egoteak ez duela onurarik ekarriko ikasleen bilakaera akademikoan.
- DBHko hirugarren maila amaitzen duten eta aurreko paragrafoan aipatutako egoeran dauden ikasleak programaren lehen urtean sartzeko proposatu ahal izango dira.

b) Programako bigarren mailara sartzeko profila:

Salbuespen gisa, honako ikasle hauek proposa daitezke programaren bigarren mailan sartzeko:

- DBHko laugarren ikasturtea amaitzean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko moduan ez egotea, irakasle-taldeak uste badu neurri horrek titulu hori lortzeko aukera emango diola, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeari buruzko maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuan aurreikusitako iraupen-mugak gainditu gabe.
- Hezkuntza-sisteman berandu sartzen diren ikasleak, programan sartzeari buruzko atalean zehaztutako baldintzak betetzen ez badituzte, ikastetxeko zuzendariak AHIZari eskaera egin ondoren, betiere ikastetxeak baimendutako taldea badu.

2. Kasu guztietan, programa horietan sartzeko, irakasle-taldeak egindako proposamen akademikoaz gain, neurriaren egokitasunari buruzko txosten bat egin beharko du Orientazio Departamentuak, ikasleari berari entzun ondoren eta haren gurasoen edo legezko tutoreen adostasunarekin.

3.2.2.- Egitura

1. Programa horiek ikastetxearen aniztasunari erantzuteko neurrien barruan sartuko dira, eta curriculum-antolaketa jakin bat beharko dute, diziplinarteko eremuen edo proiektuen bidez garatu ahal izango dena.

2. Diziplinarteko proiektuen bidez antolatuz gero, programako ikasleek talde arruntetan ikasiko dituzte hirugarren eta laugarren mailako ikasgai guztiak.



3. Eremuen arabera antolatutako programa bat aukeratuz gero, ikasleek bi eremu espezifiko eta etaparako ezarritako eta eremuetan jasotzen ez diren hiru ikasgai ikasiko dituzte (azken horiek talde arruntean egingo dituzte oro har). Gainera, izaera praktikoko eremu bat ezarri ahal izango da. Bi eremu espezifiko horiek honela osatuko dira:

- a) Hizkuntza- eta gizarte-eremua: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza, Geografia eta Historia ikasgaien oinarrizko alderdiak biltzen ditu.
- b) Eremu zientifiko-teknologikoa: Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika eta Teknologia eta Digitalizazioa ikasgaien oinarrizko alderdiak biltzen ditu.

4.- Programa horietan parte hartzen duten ikasleen asteko ordutegia 30 irakastorduko izango da.

3.2.3.- Metodologia

1. Programek erabilitako metodologia zehaztu beharko dute, dela diziplinarteko eremu edo proiektuen bitartez, dela edukien eta ikasgaien antolaketaren bitartez, dela ikasleen irteera-profilean ezarritako konpetentziak eta etapako helburuak eskuratzea bermatzen duten jarduera praktikoen bitartez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzea ahalbidetzeko.

2. Metodologia espezifiko bat erabiliko da, non curriculumaren edukiak proiektu esanguratsu eta garrantzitsuetan landu eta azalduko diren metodologia aktiboen bidez, hala nola ikaskuntza-egoeretan oinarritutako ikaskuntza, proiektuetan edo erronketan oinarritutako lana, ikaskuntza parte-hartzailea edo autogidatua; autoezagutza eta autonomia eta erantzukizuna pixkanaka eskuratzea sustatzen duena.

3. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioak ikaskuntza-egoerak diseinatzeko gida izango dira, eta hainbat irudikapen-bide, ekintza- eta adierazpen-modu eta inplikazio-modu eskainiko dituzte, banakako desberdintasunei erantzuteko.

3.2.4.- Programaren elementuak

1. Programak, gutxienez, elementu hauek izango ditu:

- a) Oinarrizko Hezkuntzaren irteera-profilean ezarritako konpetentziak eta gaitasunak lortzen direla bermatzeko programaren oinarri diren printzipio pedagogikoak, metodologikoak eta antolakuntzakoak.



- b) Programako ikasleek talde arruntetan integratutako oinarrizko curriculumari jarraituz ikasiko dituzten ikasgaiak, eta baldintza espezifikoeetan ikas ditzaketen ikasgaiak.
 - c) Ikasleak programan sartzeko irizpideak eta prozedurak.
 - d) Ikasleak taldekatzeko, eta espazioak, ordutegiak eta baliabide materialak antolatzeko irizpideak.
 - e) Programaren tutoretza-ekintza espezifikorako orientabideak eta programaren eta erreferentzia-taldearen tutoretza-ekintzaren arteko koordinazio-prozedurak.
 - f) Eremuen programazio didaktikoak eta, hala badagokio, programarako berriaz diseinatutako eskaintza propioko aukerako irakasgaiak.
 - g) Programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta prozedurak.
2. Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio horren gauzatzea gainbegiratzea eta ebaluatzea.
 3. Laguntza-zerbitzuei dagokie programa garatzeko aholkularitza ematea.

3.2.5.- Curriculum anitzeko programen plangintza

1. AHIZak urtero proposatuko ditu CA programei buruzko ikastetxe bakoitzeko taldeak. Baliabide hori zehazteko, kontuan hartuko dira eremuan dauden CA programen eskaintza, gaur egun programan dauden ikasleak, eta ikasleen gehieneko kopuruari buruzko irizpideak.
2. Oro har, programa horietarako proposatzen diren ikasleen kopuruak ezin izango du gainditu DBHko 3. eta 4. mailetan matrikulatutako ikasle guztien % 15, eta baimendutako taldeak ezin izango dira bi baino gehiago izan, DBHko 3. eta 4. mailetan matrikulatutako 300 ikasle baino gehiago dituzten ikastetxeetan izan ezik.
3. Baimenik ez duten eta programa honetarako hautagai diren ikasleak dituzten ikastetxeek, hezkuntza-orientazioko taldeen bidez, programa duten zonako ikastetxeetara joko dute, ikasle hautagaien inklusioa eskatzeko. Era berean, baimena duten ikastetxeek plaza batzuk gorde beharko dituzte beren zonako beste ikastetxe batzuetatik bideratutako ikasleak hartzeko.
4. Irizpide horiek funts publikoekin finantzatutako ikastetxe guztietan aplikatuko dira.



3.2.6.- Curriculum anitzeko programak baimentzea

1. Zentro baimenduek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Proposatutako ikasleen zerrenda.
- Ebazpen honen 3.2.4 atalean xedatutakoaren arabera egindako programa.

AHIZak posta elektronikoz eskatu ondoren, dokumentazio hori irailean edo urrian aurkeztuko da.

Dokumentazioa aurkezteko modua elektronikoa baino ez da, Hezkuntza Sailak duen aplikazioaren bidez.

2. Aurkeztutako dokumentazioaren tratamendua

AHIZak aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, aurkeztutako ikasleen egokitasuna eta ikastetxe eskatzaileen ezaugarriak egiaztatzeko.

Zuzendaritza horrek, aurkeztutako dokumentazioa behar bezala ebaluatzeko eta aztertzeko, txostenak eta/edo laguntza eskatu ahal izango dizkie hezkuntza-arloko aholkulari eta adituei.

Gainera, ikastetxeek urriaren 1a baino lehen bidaliko diote Hezkuntza Ikuskaritzari proiektuaren hartzaile diren ikasleen behin betiko zerrenda, eta eskuragarri dauden plataforma digitaletara igoko dute.

Ikasturtearen hasieran, curriculum anitzeko programetarako proposatutako ikasleen zerrenda eta benetan programa horietan eskolatutako ikasleen zerrenda bat datozela egiaztatuko du Hezkuntza Ikuskaritzak, ebazpen honetan xedatutako baldintzen arabera.

Azkenik, ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko dituzte curriculum anitzeko programetan parte hartzen duten ikasleei dagozkien orientazio-aholkuak, familien edo legezko ordezkarien baimenak, programak eta jarduera-plan pertsonalizatuak.

3.3.- ESKOLATZE-PROGRAMA OSAGARRIAK (EPO)

1.- EPO aniztasunari erantzuteko aparteko eta aldi baterako neurri bat dira, eta gizarte-egoera bereziki zailean dauden edo eskolan egokitze zailtasun larriak dituzten ikasleei zuzenduta daude. Hain zuzen ere, ikasle horiek ezin dute hezkuntza-prozesu normalizaturik aurrera eraman, aipatutako inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean. Ikasle horien laguntza-premia bereziak ezaugarri pertsonaletan edo eskola-historian oinarritu behar dira. Dena den, DBHn aniztasunari arreta emateko aurreikusita dauden neurri guztiek agortuta egon behar dute, ikasleok programan sartu aurretik.



2.- Salbuespenezko neurri gisa ere erabiltzen dira programok, eta espero ziren emaitzak lortu ez direla egiaztatu ostean ezartzen dira, behar bezala diseinatu eta planifikatutako zenbait esku-hartzeren ondoren (hezkuntza-osagaia duten prebentziozko esku-hartzeak, batetik, eta curriculumeko esku-hartzeak, bestetik, ohikoak nahiz apartekoak).

3.- Unitate espezifikoaren bidez, hazkunde pertsonalerako, ohiko sistemara berriro egokitzeko edo, geroago, Oinarrizko Lanbide Heziketara sartzeko erabilgarriak izango diren jakintzak irakatsiko zaizkie, helduaroan eta bizitza aktiboan txertatzeko gai izan daitezkeen, beren behar pertsonal eta sozialetara egokitutako curriculumarekin, DBHren oinarrizko kompetentziei uko egin gabe. Nolanahi ere, curriculumeko arlo instrumentalak lehenetsiko dira, ikasleen beharretara egokitutako metodologia erabiliz.

3.3.1.- Baimena lortzeko betekizunak

Hauek dira ikastetxe bat onartzeko bete beharreko gutxieneko eskakizunak:

- a) Proiektu bat izatea, gutxienez honako hauek jasoko dituenak:
 - Oinarri pedagogikoak: Helburu orokorrak, metodologia eta ebaluazio-prozedurak.
 - Prestakuntza-planaren eskema.
 - Hezkuntza Sailak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako adierazitako egutegiari egokitzen zaion egutegia.
 - Ikasleak artatzeko asteko ordutegia.
 - Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxearekin koordinatzeko ordutegia.
 - Ikaslearen koordinazio- eta jarraipen-plana.
 - Orientazio-plana.
 - Irakasle-talde espezializatua izatea, bai eta programa garatzeko behar diren instalazioak eta ekipamendua ere.
 - b) Programa ematen duten irakasleek koordinatuta lan egingo duen irakasle-talde osatuko dute, eta honako hauek osatuko dute:
 - Lanbide Heziketako irakasle tekniko bat edo dagokion sektorean egiaztatutako pertsona espezialista bat, Oinarrizko Lanbide Tekniken blokea irakatsiko duena.
 - Irakasle diplomadun bat, unibertsitateko lizentziadun bat edo gradu baliokideko titulazioa duen bat, Oinarrizko Prestakuntzako blokea irakatsiko duena: komunikazioaren esparrua eta esparru zientifiko-teknologikoa.
 - c) Elkarlanean esku hartzeko esparruak sustatze aldera, informazioa trukatzea eta programan esku hartzen duten beste eragile sozial batzuekin eta/edo osasun-erlokoekin lankidetzan aritzea bultzatuko da.
- 2) Hezkuntza Administrazioak honako ezaugarri hauek dituzten ikasleak esleituko dizkie baimendutako ikastetxeei:
- a) DBHko ikasleak, gehienez 15 urte dituztenak, programa hasten den urteko abenduaren 31n beteta.



- b) Proposatutako ikasleek ikastetxe batean DBHn matrikulatuta egon behar dute.
 - c) Ikasle horien hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) ezaugarri pertsonaletan edo eskola-historian oinarritu behar dira. Dena den, ikasleok programan sartu aurretik, agortuta egon behar dute DBHn aniztasunari arreta emateko aurreikusita dauden gainerako neurriak.
- 3) Ikaslea programan sartzeko, berariaz onartu eta bete beharko dira 1998ko uztailaren 30eko Aginduaren 14. artikuluan ezarritako neurriak (Agindua, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitze zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat; agindu hori aldatzen duen 2002ko maiatzaren 7ko Aginduaren arabera).
- 4) Programa bakoitzak gutxienez 8 ikasle izango ditu, eta gehienez 15.

3.3.2.- Programa berrien eskaera

Aldez aurretik baimendutako ikastetxeek soilik eman ahal izango dituzte programa horiek.

Hautemandako beharrianen arabera, ikastetxeek programa hau gauzatzeko baimena eskatu ahal izango dute. Hezkuntza Sailak, eskabideak kontuan hartuta, programa hori garatzeko baimena emango edo ukatuko dio ikastetxeari.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa 3.3.1 atalean deskribatutako baldintzak betetzeko beharrezkoa dena izango litzateke.

3.3.3.- Plangintza formalizatzea eta argitaratzea

AHIZak LPZren bitartez jakinaraziko die proposamena ikastetxe publikoei, eta hurrengo ikasturtea ituntzeko ofiziozko proposamenaren bidez, berriz, itunpeko ikastetxeei.

Ikastetxeek AHIZari helaraziko dizkiote alegazioak, balora ditzan.

3.3.4.- Eskatutako dokumentazioa aurkeztea

Proposatutako ikastetxeak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- 1.- Proposatutako ikasleen behin-behineko zerrenda.
- 2.- Proiektu pedagogikoa.
- 3.- Programan parte hartuko duten irakasleak.
- 4.- Itunpeko ikastetxeetako kasuetan, kontratazioen justifikazioa Irakaskuntza Pribatuko Langileen Erregistroaren aplikazioaren bitartez.



AHIZak posta elektronikoz eskatu ondoren, irailean edo urrian aurkeztuko dira aipatutako lau dokumentuak.

Dokumentazioa elektronikoki baino ezingo da aurkeztu, Hezkuntza Sailak horretarako duen aplikazioaren bidez.

3.3.5.- Aurkeztutako dokumentazioaren tratamendua

AHIZak eskabideko dokumentazioa aztertuko du, eta egiaztatuko du aurkeztutako proiektua eta ikasleak egokiak direla.

3.3.6.- Ikastetxearen eta titularraren betebeharrak

Ikastetxeak eta haren titularrak nahitaez bete behar dituzte 2. artikuluan aipatzen diren araubide juridikotik eratorritako eskakizunak, bai eta honako beste hauek ere:

1.- Hiru hilean behin, gutxienez, programa horietan dauden ikasleen banakako jarraipena egingo da. Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko ikasketaburuak, programaren ardura duen taldekide batek eta dagokion hezkuntza-premia berezietako aholkulariak egingo dute jarraipena.

2.- Bigarren hezkuntzako ikastetxeak eta EPOren arduradunek elkarrekin prestatuko dute ikasleen legezko arduradunei eman beharreko informazioa.

3.- Ikasle baten ikasketa-mailak eta baldintzek hala gomendatzen badute, ikastetxeko zuzendaritzari proposatu ahalko zaio ikasle hori berriz sartzea dagokion DBHko mailan. Horren berri emango zaie familiari, ikasleari eta hezkuntza berriztatzeko lurraldeburutzari. Horrela, itxiztat emango da ikaslea programan sartzeagatik burutza horretan irekitako espedientea.

4.- Jatorrizko ikastetxeari dagokio bere ikasleen absentismo-protokoloa ezartzea; eta, horretarako, ikasleei EPO ematen dien ikastetxeak zorrotz eta berehala jakinaraziko ditu gorabehera guztiak.

5.- Ikaslearen jatorrizko ikastetxeko zuzendaritzak askotariko ekintzak bultzatuko ditu ikasleak harremanetan jarrai dezan bere ikastetxearekin eta ikaskideekin (eskolaz kanpoko jarduerak, bidaiak, festak, ikasleentzako informazioa...).

6.- EPO dauzkaten ikastetxeetan, programa horien jarraipena eta ebaluazioa egingo da, 2002ko maiatzaren 7ko Aginduaren 18. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera. Bestalde, artikuluko horrek dioenez, ikastetxeak programaren ebaluazio-txostena egin behar du, eta horretarako maiatzean deitutako berariazko bilera batean aurkeztuko da txosten hori.



7.- Hezkuntza berrizatzeko lurralde-arduradunek egingo dute bilerarako deia, eta bertan honako hauek izango dira partaide: programak egiten diren ikastetxeko ordezkaria, ikastetxea dagoen lurraldeko programaz arduratzen diren arduraduna eta teknikaria, eskualdeko ikuskari bat eta hezkuntza-premia berezietako aholkulari bat.

8.- Hezkuntza berrizatzeko lurralde-arduraduna edo haren ordezkoa izango da bilerako burua. Batzorde horren txostena AHIZari aurkeztuko zaio.

3.4.- HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIEI (HLBP) LAGUNTZEKO LANGILE OSAGARRIAK

Atal honetan bi motatako laguntza-baliabideak aipatzen ditugu:

- **Pedagogia terapeutikoko irakasle espezialistak (PT):** Haur-Lehen Hezkuntzako eta DBHko etapetako gela arruntetan eskolatuta dauden eta hezkuntza-premia bereziak (HPB) edo beste hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleei arreta emateko eta curriculumak garatzeko hezkuntza-erantzun inklusiboak emateko eta laguntzeko baliabidea.
- **Hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE):** gela arruntetan edo zereginak ikasteko geletan eskolatuta dauden eta autonomiarekin eta irisgarritasunarekin lotutako hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleei arreta emateko laguntza-baliabidea. Laguntza hori 20 urte bete arte emango da, eta, ezohiko kasuetan, 21 urte bete arte.

AHIZak, eskura dituen datuetan oinarrituta, funts publikoekin sostengatutako ikastetxeen PT irakasleen eta HLE langileen beharrak baliozkotuko ditu.

3.4.1.- Hezkuntza-laguntzako berariazko premiei (HLBP) laguntzeko langile osagarriak baliozkotzeko baldintzak eta irizpideak

a) PT baliozkotzeko baldintzak eta irizpideak

PT baliabidea izateko, ikastetxeek, HLBPetako aholkularien ebaluazio psikopedagogikoaren arabera, HPBak edo beste HLBPak batzuk dituzten ikasleak matrikulatuta izan beharko dituzte, PT irakasle espezializatuen laguntza, intentsitate mugatuarekin edo zabalarekin. Ebaluazioa W67 aplikazio informatikoan jasota dago (HLBPak dituzten ikasleen erregistroa).

Ikastetxeetako PT irakasleen beharrak ezartzeko, beharra duten ikasleen kopurua eta W67 aplikazio informatikoan erregistratutako laguntzen intentsitatea hartuko da kontuan. Irizpide hauek erabiliko dira:



1) **Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan**, 2022ko maiatzaren 26ko Akordioa aplikatuko da, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan plantilla esleitzeko irizpideei buruzkoa. Horren bidez, PTko baliabide egonkorak jarriko dira, honela:

- 8 talde gehienez: 0,5 lanaldi
- 9-19 talde: lanaldi oso 1
- 19 talde baino gehiago: 2 lanaldi oso
- 500-750 ikasleko ikastetxeetan: lanaldi 1 gehiago
- 750-1.000 ikasleko ikastetxeetan: 2 lanaldi gehiago
- ikasletik gorako ikastetxeetan: 3 lanaldi gehiago

Aurreko hornidura HPBei erantzuteko nahikoa ez bada, irizpide hau erabiliko da, hau da, PT irakasle bat honako hauei erantzuteko:

- Intentsitate zabaleko premiak dituzten 6 ikasleri gehienez ere, edo
- Intentsitate mugatuko premiak dituzten 12 ikasleri gehienez ere.

Itunpeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan aurreko irizpidea aplikatuko da, hau da, PT 1 honako hauei erantzuteko:

- Intentsitate zabaleko premiak dituzten 6 ikasleri gehienez ere, edo
- Intentsitate mugatuko premiak dituzten 12 ikasleri gehienez ere.

2) **DBH etapa duten ikastetxe publikoetan**, PT irakasle bat esleituko da baliabide egonkor gisa. Hornidura hori hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko nahikoa ez bada, PTaren laguntza honako irizpide hauen arabera handituko da:

- HPBak dituzten 6-10 ikasle: beste PT bat.
- HPBak dituzten 11-15 ikasle: 2 PT gehigarri.
- HPBak dituzten 16 ikasletik gora: 3 PT gehigarri.

DBH etapa duten ikastetxe itunduetan PT 1 kontabilizatuko da honako hauek artatzeko:

- Intentsitate zabaleko edo orokortuko HPBak dituzten 5 ikasle arte, edo
- Intentsitate mugatuko HPBak dituzten 10 ikasle arte.

b) HLEak baliozkotzeko baldintzak eta irizpideak

HLEn baliabidea izateko, ikastetxeek desgaitasunen edo jokabide-nahaste larrien ondoriozko HPBak dituzten ikasleak eskolatuta eduki behar ditu, beren autonomia eta curriculumerako sarbidea sustatzeko HLE-ren laguntza behar dutenak, HLBPko aholkulariaren ebaluazio psikopedagogikoaren arabera.

Ikastetxe bakoitzak zenbat HLE behar dituen kalkulatzeko, kontuan hartuko dira behar hori duten ikasleen kopurua eta eskatzen duten laguntzaren intentsitate-maila (mugatua, zabala, orokortua edo intentsiboa). Laguntzen intentsitatea W67 aplikazio informatikoan erregistratuta dago. Aplikazio horretan ebaluazio psikopedagogikoen emaitzak jasotzen dira.

Hartara, kontuan hartuko da HLE batek intentsitate mugatuko, zabaleko edo orokortuko premiak dituzten 2-4 ikasle arta ditzakeela. Oso kasu berezietan, mugitzeko desgaitasun oso larriagatik eta autonomia erabat galdu izanagatik, baliteke arreta handiagoa behar izatea.

Zereginen ikaskuntzarako gelen kasuan, gehieneko esleipena 1,5 HLE-koa izango da.

3.4.2.- PT irakasleak eta HLEak baliozkotzeko prozedura, ikasturtearen hasieran esleitze edo finantzatze aldera

Laguntza-baliabideen aurreikuspenak egiteko garaian, hezkuntza berriztatzeko lurraldeburutzek HLBPetako aholkulariekin kontrastatuko dituzte W67 aplikazioan jasotako laguntza-intentsitateen datuak; eta, 3.4.3 apartatuan adierazitako irizpideak eta ikastetxeen testuinguru-aldagaiak aintzat hartuta, PTko eta HLEko baliabideen aurreikuspena egingo dute. Aurreikuspen horiek AHIZak baliozkotu edo aldatu egingo ditu.

Irizpide orokor gisa, bai ikastetxe publikoetarako bai itunduetarako, hurrengo atalean aipatzen diren funtsezko aldaketak salbu, **ikasturtea hasi ondoren ez da aldaketarik izango ikastetxeetako PT irakasleen eta HLEen horniduran.**

Ebaluazio psikopedagogiko berrien ondorioz edo lehendik zeudenen eguneratzearen ondorioz PTaren edo HLEen beharretan gertatzen diren aldaketak **kontuan hartuko dira hurrengo ikasturtean dagokion esleipena zehazteko.**

a) Hasierako balidazioaren berezitasunak irakaskuntza publikoan

PTen eta HLEen beharrei erantzuteko lanaldi osoko edo lanaldi erdiko plazak esleituko dira.

Errekurtso hauek esleitzeko prozedura honako hau da:

▪ PTko baliabideen esleipena

PTko baliabideen aurreikuspena LPZren proposamenean egingo da. Ikastetxeek hezkuntza berriztatzeko lurraldeburutzari helaraziko dizkiote alegazioak balora ditzan.

Aurreikuspenak egiten diren unetik ikasturtearen hasierara bitartean, PTko baliabidea behar duten ikasleen funtsezko altak edo bajak gertatzen badira, ikastetxeak lehenbailehen jakinarazi beharko dio hezkuntza berriztatzeko lurraldeburutzari, aurreikuspena egunera dezan, egoera azter dezan eta, hala badagokio, baliabide gehiago edo gutxiago eska diezaion AHIZri. Lurraldeburutzak ere ofizioz egin ahal izango du eskaera hori, ikastetxeko matrikula-kopuruak gora edo behera egin duela jakin ondoren.

▪ HLEen baliabideen esleipena

Hezkuntza berriztatzeko lurraldeburutzak HLE baliabideen (lan-kontratudun langileak) aurreikuspenen berri emango die ikastetxeei. Batzorde Paritarioa osatzen duten sindikatuei ere horren berri emango zaie, egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Ikastetxe eta sindikatuen alegazioak arrazoituta ebatzi ondoren, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak hurrengo ikasturterako lanpostuak beteko ditu.

Aurreikuspenak egiten diren unetik ikasturtearen hasierara bitartean, HLEko baliabidea behar duten ikasleen funtsezko altak edo bajak gertatzen badira, ikastetxeak lehenbailehen jakinarazi beharko dio hezkuntza berriztatzeko lurraldeburutzari, aurreikuspena egunera dezan, egoera azter dezan eta, hala badagokio, baliabide gehiago edo gutxiago eska diezaion AHIZri. Lurraldeburutzak ere ofizioz egin ahal izango du eskaera hori, ikastetxeko matrikula-kopuruak gora edo behera egin duela jakin ondoren.

b) Hasierako balidazioaren berezitasunak itunpeko irakaskuntzan

Prozedura hasteko, AHIZak **ofiziozko proposamen** bat aurkeztuko du PT irakasleak eta HLEk ituntzeko, egindako aurreikuspenen arabera. Ikastetxeek proposamen horri buruzko iritzia eman beharko dute Hezkuntza Sailaren hezkuntza-itunen aplikazioan.

- Ikastetxea proposamenarekin ados baldin badago, espresuki onartu beharko du.
- Ez bazaio egokia iruditzen, aldaketa **eskaera** bat egin beharko du hezkuntza-itunen aplikazioaren bitartez, eta eskaera hori baloratzeko informazio lagungarria erantsi.

Jasotako informaziotik abiatuta, txosten arrazoitu bat egingo du AHIZak, eskaerarekin ados dagoela (osorik edo zati batean) edo ados ez dagoela adierazteko, eta txosten hori erabiliko da hitzarmenari buruzko behin betiko erabakia hartzeko, eta, hala, **behin-behineko proposamenari** bide emango zaio. Ikastetxeek alegazioak egin ahal izango dituzte, eta arrazoituta erantzungo zaie.

3.4.3.- Funtsezko aldaketak PT irakasleen edo HLEen beharretan ikasturtean zehar

a) PT irakasleen edo HLEen beharren handitze esanguratsua, ikasturtea hasi ondoren

Salbuespen gisa, eta honako arrazoi hauek medio, PT irakasleen eta HLEen esleipena berrikusteko eskatu ahal izango dute ikastetxe publikoek eta itunpekoek, era ezohikoan eta ikasturte berean ondorioak izateko:

- **Onarpen-prozesu arruntetik kanpo gertatutako eskolatzeko-kasu bereziengatik** (2022ko abenduaren 27ko Aginduaren 2. artikulua) intentsitate handiko PT edo HLEen laguntza behar duten ikasleak matrikulatu direnean eta argi dagoenean premia hori ezin dela onartu eskura dauden baliabideekin.
- **Gerora sortutako eta salbuespenezko arrazoiengatik**, ikastetxeari esleitutako PT edo HLE baliabideen esleipena argi eta garbi nahikoa ez denean intentsitate handiko HPBei erantzuteko.

PTko eta HLEko aparteko baliabide horiek salbuespen kasuetan eskatu eta hornitzeko, AHIZak ezarritako prozedura honi jarraituko zaio:

Irakaskuntza **publikoan**:

- 1º) Ikastetxeak hezkuntza berrizatzeko lurraldeburutzari eskatuko dio aparteko baliabidea. Eskieran, esleitutako bitartekoak berrantolatu dituela eta hala ere ikasleei arreta ematea ezinezkoa zaiola justifikatu beharko du.
- 2º) Lurraldeburutzak txostena eskatuko die dagokion HLBPko aholkulariari eta, egokia iritziz gero, Ikuskaritzari. Baliabidea ezinbestekoa dela uste badu, AHIZari helaraziko dio eskaera arrazoitua.
- 3º) AHIZak hartuko du baliabideak gehitzeko eskaerari dagokion erabakia. Oniritzia emanaz gero, PT dotazioa handitzeko eskaera arrazoitua helaraziko dio Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, eta zuzendaritza horrek, era berean, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari bideratuko dio eskabidea; azken horrek gauzatuko du kontratazioa. Eta HLEen dotazioa handitzeko, AHIZak zuzenean eskatuko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari.

Itunpeko irakaskuntzan:

- Ikasturtearen hasieran, urrian, itunaren ofiziozko aldaketa egingo da. Horretarako, egiaztatuko da ea ikasleen funtsezko altarik izan den —PTko baliabideen hornidura handitzea ekar dezake horrek—, eta itundutako baliabideak doituko dira. Ikastetxeek alegazioak egin ahal izango dituzte, eta arrazoituta erantzungo zaie.



- Ikasturtean zehar, baina **beti apirilaren 15a baino 15 egun baliiodun lehenago**, ikastetxeak esleipenaren berrikuspena eskatu ahal izango du, honako prozedura jarraituz:
 - 1º) Ikastetxeak hezkuntza berriztatzeko lurraldeburutzari eskatuko dio aparteko baliabidea, helbide honen bitartez: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0041411>. Eskaeran, esleitutako bitartekoak berrantolatu dituela eta, hala ere, ikasleei arreta ematea ezinezkoa zaiola justifikatu beharko du.
 - 2º) Lurraldeburutzak txostena eskatuko die dagokion HLBPKo aholkulariari eta, egokia iritziz gero, Ikuskaritzari. Baliabidea ezinbestekoa dela uste badu, AHIZari helaraziko dio eskaera arrazoitua.
 - 3º) AHIZak hartuko du baliabideak gehitzeko eskaerari dagokion erabakia eta Hezkuntza Berriztatzeko lurraldeburutzari eta ikastetxeari erabakiaren berri emango die.
 - 4º) Oniritzia eman ez gero, erabakia arrazoitua helaraziko dio Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzari, azken horrek hitzarmenean sar dezan. Ordainketa eskuordetua egiteko ohiko prozedura erabiliko da, onartutako kontratazioaren egunetik aurrera.
 - 5º) Kontratazioa apirilaren 15a baino lehen egin eta sartu beharko da Hezkuntza Saileko Irakaskuntza Pribatuko Langileen Erregistroaren aplikazioan.

b) PT irakasleen edo HLEen beharren murrizketa esanguratsua, ikasturtea hasi ondoren

Funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztiek PTko edo HLEko baliabidea duten ikasleen matrikula-bajen berri eman behar diote dagokien hezkuntza berriztatzeko lurraldeburutzari.

Ikasturtean zehar PT irakasleen edo HLEen beharra nabarmen murriztuko balitz ikastetxeetan, ikasleen ebaluazio psikopedagogikoak berrikusi eta/edo laguntza hori behar duten ikasleen matrikula deuseztatzearen ondorioz:

- Irakaskuntza **publikoan**, hezkuntza berriztatzeko lurraldeburutzak, dagokion HLBPKo aholkulariaren laguntzarekin, behar bezala berrantolatuko ditu PT irakasleak edo HLEk.
- **Itunpeko** irakaskuntzan, itundu beharreko baliabideak aldatzea bidezkoa den baloratuko da.



3.4.4.- PT irakasle eta HLEen kontratazioa eta justifikazioa (itunpeko ikastetxeak soilik)

PTko eta HLEko baliabidea ituntzeko unitatea 0,5 lanaldi da.

PT baliabideen kasuan Haur eta Lehen Hezkuntzako PTa eta DBHko PTa bereizten dira.

HLEn ituna antzekoa da hezkuntza-etapa guztietan.

Ikastetxeak erabaki beharko du, ikasleen beharrak eta langileen lan-eskubideak aintzat hartuta, zenbateko lanaldi-ehunekoak kontratatuko dituen, hezkuntza-itunak finantzatzutako guztizkora iritsi arte.

Ikastetxeek Irakaskuntza Pribatuko Langileen Erregistroa aplikazioaren bidez justifikatu beharko dituzte kontratazioak.

Ordainketa delegatutako prozedura arruntaren bidez egingo da.

3.5.- GELA EGONKORRAK (GE) ETA ZEREGINEN IKASKUNTZARAKO GELAK (ZIG)

Gela egonkorretan (GE) HPBko ikasleak hartuko dituzte, larritasun-maila larria, muga funtzional garrantzitsuak eta askotariko etiologietatik eratorritako laguntza-behar orokorrak dituztenak (mugimendu- eta adimen-desgaitasuna, desgaitasun psikikoa, desgaitasun aniztasuna, autismoaren espektroaren nahastea...). Ikastetxe arruntetan kokatutako gela horietan eskolatzeak berariazko curriculum eta arreta pertsonalizatua eskatzen ditu, eta ezin da gela arruntetan eman.

Gela egonkorrek ez dute espezialitaterik izango.

Behin ikasleak 16 urtera iritsita, 20 urte bete arte (normalean), desgaitasun-mailaren eta/edo lortu beharreko kompetentzien, Zereginen Ikaskuntzarako Programetan eskolatu ahal izango dira (ZIG). ZIG programak: adimen-desgaitasun ertaina izatearen ondorioz kompetentzia profesionalik lortu ez arren, trebetasun profesional jakin batzuk lor ditzaketen ikasleentzat berariaz prestatutakoak.

3.5.1.- GEko eta ZIGeko baliabide pertsonalak baliozkotzeko betekizunak eta irizpideak

GEak eta ZIGak lurralde-mailan planifikatuko dira, eta gela berriak sortu ahal izango dira baldin eta eremu geografiko batean plaza librerik ez badago, eskolatze-proposamen hori duten gutxienez hiru ikasle badaude eta epe ertain edo luzera ikasleen jarraipena aurreikusten bada.



Oro har, gela horien baliabide pertsonalak honako hauek izango dira:

	PT	HLE	Tailer- maisua	Beste langile batzuk ¹
Gela egonkorra (GE)	1 ²	1 ³	0	0,10 (10 gelako 1)
Zereginen ikaskuntzarako gela (ZIG)	1	0 ⁴	1	

- (1) Entzumen eta Hizkuntzako Irakaslearen antzeko kategoriako profesionalak (A2 taldea, adibidez, terapeuta okupazionala, fisioterapeuta, espezialitate desberdinetako irakasle; psikologoa ez, A1 delako).
- (2) Salbuesenez, bigarren hezkuntzako ikastetxeetako ikasgela egonkor publikoek 2 PT izango dituzte, bigarren hezkuntzako PTen lan-baldintzen ondorioz eta ikasleen ordutegi osoa bete ahal izateko.
- (3) Ikasgela egonkorretan inguruabar hauetako bat gertatzen bada, ikastetxea 0,5 HLEekin indartu ahal izango da, ikasgela egonkorrean funtsezko jardura egiteko:
 - 5 ikasle baino gehiago daudenean.
 - 5 ikasle daudenean eta, gainera, honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:
 - Desgaitasun anitzeko ikasle bat dago.
 - Portaera-nahaste larria eta oso disruptiboa duen ikasleren bat badago
 - Gurpil-aulkia darabilten ikasle batzuk badaude, eta ezin bazaie arreta egokia eman.
- (4) HLEez horni daitezke, ikasleen beharren arabera (ikusitako ebazpen honen 3.4.1 apartatua).

3.5.2- GEak eta ZIGak baliozkotzeko prozedura

Hurrengo ikasturterako behar diren baliabideen aurreikuspenak egiteko garaian, hezkuntza berriztatzeko lurraldeburuek zonako HLBPko aholkularitzekin kontsultatuko dute zer-nolako beharrezkoak dituzten artatzen dituzten ikasleek, gela mota horiei dagokienez.

Martxan ari diren gelen okupazioa eta kokapena, epe ertain edo luzera beharren aurreikuspena eta, behar izanez gero, ea gela berriak irekitzeko benetako aukera dagoen aztertuta, hutsik dauden gelak ixteko edo gela berriak irekitzeko proposamena egingo dute lurralde buruek, hala ikastetxe publikoetan nola itunpekoetan. Proposamen hori, ikasgelen alde aurreko baimena behar du eta AHIZak baliozkotu, aldatu edo ukatu egingo du.

Irakaskuntza itunduaren kasuan, eta aipatu prozesua bukatutakoan, proposamena Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Itunen aplikazioan sartuko da, ikastetxeek espresuki onar dezaten.

3.5.3.- Ikastetxearen eta titularraren betebeharrak (itunpeko ikastetxeak soilik)

Ikastetxeak eta haren titularrak hezkuntza-itunak finantzatzeko langileak kontratatu beharko dituzte, eta langileon kontratazioa justifikatu beharko dute ikasturtearen hasieran Hezkuntza Sailaren Irakaskuntza Pribatuko Langileen Erregistroaren aplikazioa baliatuz.

Hezkuntza Sailak finantzatzeko langile guztien kontratazioa egin dela egiaztatuko du.



3.6.- HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEETAKO IKASGELAK

Hezkuntza bereziko ikastetxeen helburu nagusia HPBak dituzten ikasleei egokitutako hezkuntza ematea da, premia horien larritasunaren eta iraupenaren arabera, eta kontuan hartuz zer-nolako beharrianak dituzten giza baliabideen eta baliabide tekniko espezializatuen arloan —ikastetxe arruntetako gela egonkorretan eskaini ezin zaizkien baliabideak—.

Ikastetxe horietako gelek espezialitate hauetako bat izango dute:

- Garapenaren nahasmendu orokorra (GNO) gela.
- Autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) gela.
- Mugitzeko desgaitasun larria eta hari lotutako bestelako gaixotasunak gela

3.6.1.- Hezkuntza bereziko ikastetxeen geletako baliabide pertsonalak baliozkotzeko betekizunak eta irizpideak

Ikastetxe horietako gelak lurralde-mailan planifikatuko dira:

- Gela berriak sortu ahal izango dira baldin eta batean plaza librerik ez badago, eskolatze-proposamen hori duten gutxienez hiru ikasle badaude eta epe ertain edo luzera ikasleen jarraipena aurreikusten bada.
- Gelak itxiko dira horiek betetzeko ikasle nahikorik ez dagoenean.

Itunpeko ikastetxeetan, gela horiek honako baliabide pertsonal hauek dituzte (profesionalak/ikasgela):

	GNO gelak	AEN gelak	MD gelak
Lehen Hezkuntzako PT	1,067	1,053	1,053
Psikologoa	0,14	0,14	0,10
Hezkuntza-laguntzako espezialista	1	1,825	1,767
Fisioterapeuta			0,25
Terapeuta okupazionala			0,167
Beste langile batzuk¹	0,66	0,14	0,25

(1) Entzumen eta Hizkuntzako Irakaslearen antzeko kategoriako profesionalak.

Hezkuntza bereziko ikastetxe publiko bakarrak (Gorbeialde HBI, Vitoria-Gasteiz) ez du espezialitaterik, baina beharren arabera taldekatzen ditu ikasleak. Langile kopurua itunpeko ikastetxeek dutenaren antzekoa da.



3.6.2- Hezkuntza bereziko ikastetxeetako gela berriak baliozkotzeko prozedura

Hurrengo ikasturterako behar diren baliabideen aurreikuspenak egiteko garaian, hezkuntza berriztatzeko lurraldeburuek zonako HLBPKo aholkularitzekin kontsultatuko dute zer-nolako beharrizanak dituzten artatzen dituzten ikasleek, gela mota horiei dagokienez.

Martxan ari diren gelen okupazioa eta kokapena, epe ertain edo luzera beharren aurreikuspena eta, behar izanez gero, gela berriak irekitzeko benetako aukera dagoen aztertuta, lurraldeburuek hutsik dauden gelak ixteko edo gela berriak irekitzeko proposamena egingo dute. Proposamen horrek ikasgelen alde aurreko baimena behar du gela berria irekitzen denean eta AHIZak proposamen hori baliozkotu, aldatu edo ukatu egingo du.

Irakaskuntza itunduaren kasuan, eta aipatutako prozesua amaitu ondoren, talde horiek Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Itunen aplikazioan sartuko den ituntze-proposamenean sartuko dira, ikastetxeek espresuki onar dezaten.

3.6.3.- Ikastetxearen eta titularraren betebeharrak (itunpeko ikastetxeak soilik)

Ikastetxeak eta haren titularrak hezkuntza-itunak finantzatzeko langileak kontratatu beharko dituzte, eta langileon kontratazioa justifikatu beharko dute ikasturte hasieran, Hezkuntza Sailaren Irakaskuntza Pribatuko Langileen Erregistroaren aplikazioa baliatuz.

Hezkuntza Sailak finantzatzeko langile guztien kontratazioa egin dela egiaztatuko du.

Xedapen gehigarri bakarra

Itunpeko ikastetxe pribatuei dagokienez, itunen aginduan ezarritako prozedura aplikatuko da ebazpen honetan jasotako baliabideak hitzartzeko.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean

BEGOÑA PEDROSA LOBATO
HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA